

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERNEDOKO UDALA

Dirulaguntzen 2021/2023 plan estrategikoa onestea

Udalbatzak, 2012ko abenduaren 16ko bilkuran, honako hau erabaki zuen:

Lehenengoa. Bernedoko Udalaren dirulaguntzen 2021/2023 plan estrategikoa onartzea. Honekin batera doa plana, eranskin gisa.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn eta iragarki taulan argitaratzea.

Eranskina: Dirulaguntzen 2021-2023 plan estrategikoa

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 8.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntzak eman nahi dituzten herri administrazioetako organoek dirulaguntzen plan estrategikoa onetsi behar dute, eta honako hauek zehaztu behar dituzte bertan: dirulaguntzen helburuak eta haien bitartez lortu nahi diren ondorioak, horiek gauzatzeko epea, aurreikusten diren kostuak, eta finantzabideak. Plana gauzatzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea.

Legearen printzipioetako bat gardentasuna da. Horrek, legean ezarritako beste hainbat tresnarekin batera, zuzenean dakar dirulaguntzen gastu publikoaren kudeaketan eraginkortasun eta efizientzia mailak handitzea. Eraginkortasuna hobetzeko, legerian aurreikusten da dirulaguntzen plan estrategikoa bat prestatzea, urte anitzekoa, baina urtez urte eguneratzeko modukoa, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuan ezarritakoarekin bat etorritz.

Horregatik, udal honek dirulaguntzen plan estrategikoa onetsi du. Hona artikulua:

I. kapitulua. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Udal honek plan honetan jasotakoaren arabera ezarriko ditu dirulaguntzak 2021-2023 aldiran. Plan hori eranskinean dago garatuta.

2. artikulua

Plan honetan jasotako dirulaguntzak eman ahal izateko, derrigorrezkoa da urteko udal aurrekontuetan esleipenak egitea eta oinarri arautzaileak jasotzen dituzten ordenantzak edo oinarriak onartzea.

3. artikulua

Dirulaguntzak emateko baldintza da aurrekontu egonkortasunaren helburuak betetzea. Hor-taz, onartzen diren aurrekontu esleipenak eta oinarri arautzaileak helburu horietara egokituko dira beti.

Zehazki, 9. lerroa, kontzejuei gastu arruntei aurre egiteko dirulaguntza ematekoa, aurrekontu aldaketa bat onesten bada emango da, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren kargura, eta baliabideek horretarako aukera ematen duten urterokoetan zuzkituko da.

4. artikulua

Dirulaguntzen plan estrategikoa onesteak ez du esan nahi balizko onuradunek eskubiderik dutenik, eta, plana ez bada bertan jasotako moduan gauzatzen, ezingo dute kalte ordainik edo konpentsaziorik eskatu.

II. kapitulua. Dirulaguntzen onuradunak eta gaiak

5. artikulua

Udalak dirulaguntzak emango dizkie onura publikoko edo gizarte intereseko jarduerak edo toki eskumeneko xede publikoak lortzeko jarduerak sustatzen dituzten pertsona fisiko edo erakunde pribatuei.

6. artikulua

Udalak urtero ezarriko ditu dirulaguntzak gai hauetan:

– Gizarte ekintza. (garapen komunitarioa, ondarea zaharberritzea, administrazio batzarrekiko lankidetzak).

– Euskara, Kultura eta Kirola.

III. kapitulua. Planaren kontrola eta ebaluazioa

7. artikulua

Alkateak kontrolatuko du plan hau betetzen den, indarrean den bitartean, eta udalbatzari emaitzen berri emango dio.

Dirulaguntza bakoitzaren eraginkortasuna aztertzeko, kasuan kasuko zerbitzuko teknikariek honako hauen berri emango dute: egindako ekintzen irismena, dirulaguntza jasotzen duten herritarren kopurua eta helburuen justifikazioa.

IV. kapitulua. Finantza kontrola

8. artikulua

Diruz lagundutako programen finantza kontrolaren arduraduna Udal Kontu-hartzailetza izango da, eta berak aztertuko ditu diruz lagundutako zenbatekoak ordaindu diren egunak eta onuradun bakoitzari dirulaguntza lortzeko eskatutako betebeharren justifikazioa.

9. artikulua

Planaren indarraldia amaitutakoan, hurrengo plana egin aurretik, alkateak memoria aurkeztuko dio udalbatzari; bertan, gutxienez, hauek agertuko dira: plana zenbateraino bete den; dirulaguntzen eraginkortasuna eta efizientzia, lortu nahi ziren helburu eta ondorioei dagokienez; eta ondorioak, bai eta hurrengo dirulaguntzen plan estrategikoa taxutzeko iradokizunen proposamena ere.

Dirulaguntzen 2021-2023 plan estrategikoa

DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ERANSKINA							
GIZARTE EKINTZA GARAPEN KOMUNITARIOA							
ZK.	AZALPENA	HARTZAILEA	MODALITATEA	LORTZEKO EPEA	HELBURUAK	AURREKONTUA	PARTIDA
1	ELKARTASUNA HIRUGARREN MUNDUAREKIN	EUSKAL FONDOA	Zuzeneko emakida	2021/2023	Alde behartsuetako programak garatzea	650,00	231.480.002
2	LAGUNTZAK SEME-ALABAK JAIOTZEAGATIK	PERTSONA FISIKOAK	Zuzeneko emakida	2021/2023	Jaiotza tasa sustatzea	4.000,00	230.480.001
3	LAGUNTZAK EGOITZAREN ERABILTAILEENTZAT	PERTSONA FISIKOAK	Zuzeneko emakida	2021/2023	Herritarrei laguntzea 3. adineko egoitzan sartzearagatik	4.452,00	231.480.000
4	EGUNEKO ZENTROARI EUSTEA	LAGRANGO UDALA	Zuzeneko emakida	2021/2023	Erraztasunak ematea Lagrango eguneko zentroan sartzeko	6750,00	231.430.000
5	IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ERAKUNDEAK	PERTSONA FISIKOAK ETA ERAKUNDEAK		2021/2023	Laguntzak pertsona behartsuentzat	100,00	231.480.000
6	UDALEKUAK JOAN-JOAN ETORRIAK	PERTSONA FISIKOAK	Zuzeneko emakida	2021/2023	Laguntzak udalerriko gurasoentzat, Bernedokontzat izan ezik	150,00	335.480.006
GIZARTE EKINTZA ONDAREA BIRGAITZEA							
7	BERNEDO ETA MARKIZ BIA-KO ERAIKINAK ZAHARBERRITZEA	PERTSONA FISIKOAK	Zuzeneko emakida	2021/2023	BIAetan eraikitako ondarea berreskuratzeko sustapena egitea	8.000,00 . Sarrera arrunten % 1,5	1.522.781.000
GIZARTE EKINTZA. BBNN-EKIN LANKIDETZA							
8	OHZ GASTUAK	ADMIN. BATZARRAK	Zuzeneko emakida	2021/2023	Mantentze partaidetza	12.000,00	943.434.000
GIZARTE EKINTZA. ADMIN. BATZARREKIN LANKIDETZA							
9	Gastu orokorrak	Administrazio Batzarra	Zuzeneko emakida	2021/2023	Mantentze partaidetza	30.000,00	943.434.004
EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA							
10	EUSKARA IKASTEKO BEKAK	PERTSONA FISIKOAK	Lehia askea	2021/2023	Euskararen ikaskuntza sustatzea	1.000,00	335.480.000
11	ARABA EUSKARAZ KORRIKA	ERAKUNDEAK ETA ELKARTEAK	Zuzeneko emakida	2021/2023	Euskararen erabilera sustatzea	1.000,00	335.481.000
12	KULTURA JARDUERAK	ELKARTEAK	Lehia askea.	2021/2023/2018/2020	Gizartea eta kultura sustatzeko programak eta jarduerak egiten laguntzea	4.000,00	334.481.001
13	HERRIKO JAIETARAKO DIRULAGUNTZA	Administrazio Batzarrak	Zuzeneko emakida	2021/2023/2018/2020	Festa ekitaldietan herritarren parte-hartzea sustatzea	6.500	338.434.000
14	KIROL JARDUERAK	Kluben eta elkarteak	Zuzeneko emakida	2021/2023/2018/2020	Kirola garatu eta egiteko laguntzea	2.000	341.481.000

Bernedo, 2020ko abenduaren 28a

Alkatea

RUBEN MARTÍNEZ CRESPO